

Gizarte arloko ehun bat kolektibok Hemen ez dago inor sobran izeneko kanpaina aurkeztu dute publikoki

Gizarte-mobilizazioko kanpaina horren helburua zera da; Atzerritarren Legearen erreformak herritar jakin batzuen eskubideen gain dakarren eskubide-murrizketa salatzea, eta gizarte-eragile guztiei, euskal erakundeei, alderdi politikoei eta sindikatuei dei egitea, horren aurrean dagokion ukoa adieraz dezaten.

Gobernuaren oportunitate politikoa egungo koiuntura ekonomikoaz baliatzen da, migrazio-politika zorrotzu eta, ondorioz, etorkinen hauskortasuna areagotzeko. Krisiaren diskurtso mediatikoa erabiliz, makina bat dira aurrera eramaten diren ekintzak: etorkinak beraien jatorrizko herrialdeetara bueltatzen dira, garapenerako laguntzapean mozorrotuta; egoera ez-erregularrean dauden lagunen atxiloteta arbitrario gehiago daude; eta etorkinen kolektiboa erabili nahiz manipulatu da, interes ekonomiko hutsen pentsutan, bazterketa-egoera mantenduz.

2008ko azaroaren 19an Atzerritarren Legea aldatzeko Aurreproiektua onartu zen. Proiektu berriak **aurrerapauso handia dakar etorkinen oinarrizko eskubideak urratzeari dagokionez**; eta Legea berez publikoki salatzeko modukoa bada ere, bertan jasotzen diren zenbait alde guztiz aipagarrik dira, eragin handia baitute etorkinen ongizatean.

- **Etorkinen gurasoek zailtasun handiak dituzte familia berriz elkartzeko orduan; izan ere, familia elkartzeaz arduratzen den pertsonak nahitaez izan behar du epe luzerako egoiliar izaera.** Familiarekin elkartzen den guraso edo aurreko senideak, gainera, 65 urtetik gorakoak izan behar dira. Horrek esan nahi du, modu nabarmenean urratzen dela familia berriz elkartzeko eskubidea, eta oztopo berri bat ezartzen dela etorkinen kolektiboa erabat integratzeko orduan. Guztiok dugu gure familiaren beharrazana.

- **Legeak ez du jasotzen abokatuaren laguntzarik adin txikikoak aberriratzeko prozesuetan; kontrara, dagokion herrialdetik kanporatuko direla aipatzen da, arau-hausteren bat egin duten kasuetan.** Hori guztia, beraz, ez dator bat Adingabekoen Erantzukizunari buruzko Lege Organikoak jasotzen duenarekin. Gobernuak kriminal gisa hartzen ditu etorkin adingabeak, kontuan hartu gabe, adin txikikoak direla.

- **CIES delakoetan barneratzealdiak gehitzen ditu, 40tik 60 egunera;** igoera hori oinarrizko askatasun-eskubidearen kontrakoa da, eta administrazioaren arau-hauste soil batean baino ez dago oinarritua. Gainera, ez dago horren inguruko arauketa orokor bakarria, ondorioz, hauskortasun gehiago sorrarazten du barneratutako gazteen artean.

- **Arau-hauste larriak gehitu dira, hala nola, atzerritarren egonaldi ez-erregularrak sustatzea, edo udal-erroldetan izena ematea,** nahiz eta bertan jasotzen de helbidea etxebizitza errealarari egokitu ez. Neurri horrek oinarrizko eskubideak lortzea eragozten die, esaterako, osasun-laguntza edota hezkuntza.

- **Erreforma aurreproiektuak eraso egiten die gizarte-kolektiboek eta, orokorrean, baita herritarrei ere;** izan ere, integrazioaren aldeko izan beharko lukeen jarduera administrazioaren arau-hauste larri bilakatzen du, zeinari 501 eta 10.000 euro arteko zigorra ezartzen zaion, lagundutako pertsona bakoitzeko.

HEMEN EZ DAGO INOR SOBRAN, beraz, ehundik gora kolektibok honakoa eskatzen dugu:

- **Gobernu zentralak Atzerritarren Legea aldatzen duen aurreproiektua atzera bota dezala,** erabateko atzerapausoa dakarrelako etorkinen eskubideetan, eta horien integrazioa oztopatzen duelako.

- **Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta Udalak** aurreproiektu horren aurka jar daitezela, herritarren eskubideak urratzeaz gain barne-hartze aktiboaren alde autonomia mailan egindako aurrerapausoak hausten baititu.

- **Administrazioek erantzukizuna har dezatela adingabeen tutoretzari dagokionez;** horretarako, beharrezko baliabideak eskaini beharko dituzte horien babesa eta integrazio osoa bermatzeko.

- **Alderdi politiko desberdinetako ordezkariak aurreproiektuari uko egin,** eta legebiltzarraren aurrean honako errebindikazioak aurkez ditzatela.

- **Estatuan dauden Atzerritarrentzako Barneratze Zentroak (CIES)** itxi daitezela, pertsonentzako errepresio nahiz marjinazio bideak direlako. Pertsona horiek arau-hauste administratibo bat baino ez dute egin, eta inola ere ez askatasuna kentzeko moduko delitua.

- **Gizarte eragileok, herritarrok nahiz etorkinek eskaintzen dugun harrera egitearen, laguntzaren eta integrazioaren gizarte-ekintza zigor kodetik erabat kendu eta desagerraraztea;** hauskortasun egoeran daudenen kasuan, batez ere: “ez-erregularrak” deritzenen koiunturan daudenak.

Datozen mobilizazioak

“**Hemen ez dago inor sobran**” lelopean, ehun bat kolektibo bildu eta herritarrei deia egin diegu, honako mobilizazioetan parte hartu dezaten:

Maiatzaren 14an, osteguna, goizeko 11:00etan, “Maleta-kontzentrazioa”. Kale-gagerraldia Gobernuaren ordezkariordetzaren aurrean. Moyua Plaza.

Maiatzaren 16an, larunbata, eguerdiko 13:00ean, “Aurreproiektuari EZ”. Kontzentrazioa, Bilbon, Arriaga Antzokiaren aurrean.

Atzerritarren Legea aldatuko duen Aurreproiektua dela-eta gainera datorkigun migrazio-politikaren testuinguruan, gizarte kolektiboek diskriminazio-ezaren eta eskubideen alde borrokatzen jarraituko dugu. Behin eta berriz salatuko ditugu kanporaketan eta mugen itxieran oinarritzen diren migrazio-politiken gogortzeak.

ATXIKIPENAK